Horrez gain, epaiketaren kostuak ordaintzera ere behartu zuten gure Alkatea; 5.500 euro, hain zuzen ere. Eta akatsa egin duen pertsonak edo alderdiak ordaindu beharrean, 5.500 euro horiek herritar guztiok ordaindu ditugu, eta informazioa ukatu zaion pertsonak ere bai. Beraz, bunker burokratiko hau aldatzea nahi dugulako eta horren alde lan asko egiten ari direlako legegintzaldi honetan, oso begi onez ikusten dugu Herriaren Eskubideak aurkeztutako mozio hau eta gure aldeko botoa emango diogu.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andrak (EAJ/PNV)**: Mozioa behin irakurri eta gero esan beharra dago bertan eskatzen den gehiena martxan dagoela, ez diogu zentzurik ikusten mozio baten beharrari gai honen inguruan aldaketak egiteko. Orain dela gutxi Ogasun batzordean informatika arduraduna bertaratu zen azalpenak emateko; ez daukagu inolako arazorik arduraduna berriz ere behar den batzordera etortzeko, ez dakit Ogasun batzordera edo Jasangarritasun batzordera, eta esan diezagula nola erraztu daitezkeen hemen agertzen diren atalak.

Ez dugu esaten gauzak ezin direnik hobetu, baina, uste dugu mozioa ez dela tresna egokiena hori aurrera eramateko. Guk eskatzen dugu mozioa bertan behera geratzea eta informatikako arduraduna dagokion batzordera gonbidatzea eta lantzeko nola erraztu daitezkeen eskatzen diren aldaketa horiek.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gaur bertan sartu gara webgune horietan, eta, guztia martxan dagoela esaten duzuen arren, hemengo ezer ez da ageri oraindik ere. Kontua ez da batzordeetara eramatea, batzordeetan eta osoko bilkuran onartuta dagoena aplikatzea baizik. Kontua ez da

Si bien hemos solicitado la retirada de la moción, creemos que tiene todo sentido mantenerla y que aún queda mucho trabajo por hacer para promover la participación ciudadana y la transparencia. No es de extrañar que este Equipo de Gobierno y, en particular, la señora Alcaldesa hayan sido obligados por un juzgado a facilitar un total de 14 documentos a otro concejal de este ayuntamiento al comienzo de la legislatura.

Asimismo, la señora Alcaldesa tuvo que asumir las costas procesales, que ascienden a 5.500 euros. Y el desembolso de esta suma de 5.500 euros, en lugar de haberlo asumido la persona o el partido que cometió la infracción, lo hemos asumido el conjunto de la ciudadanía, entre la cual se encuentra también la persona a la que se negó la información. Por tanto, porque queremos cambiar este búnker democrático y porque estamos realizando un gran esfuerzo en este legislatura, vemos con muy buenos ojos esta moción presentada por Herriaren Eskubidea, por lo que anunciamos nuestro voto favorable.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Una vez leída la moción, hay que subrayar que todo lo que se solicita ya se encuentra en marcha, no vemos la necesidad de esta moción para impulsar cambios en este asunto. Hace poco tiempo, el responsable de informática se personó en la Comisión de Hacienda para dar explicaciones. No tenemos ningún problema para convocar de nuevo a la persona responsable a la comisión que sea, no sé si deba ser la Comisión de Hacienda o de Sostenibilidad, para que nos explique cómo se pueden facilitar los aspectos que aquí se recogen.

No decimos que las cosas no se puedan mejorar, pero creemos que la moción no es la mejor opción para llevarlo a cabo. Lo que nosotros solicitamos es la retirada de la moción e invitar el responsable de informática a la comisión correspondiente, con el fin de abordar la manera de facilitar los cambios que se plantean.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Hoy mismo hemos accedido a estas páginas web y, pese a que nos dicen que todo está en marcha, sigue sin aparecer nada de esto. No es una cuestión de llevarlo a comisiones, es una cuestión de aplicar lo que ya está aprobado, en comisiones y en el pleno. No es cues-

berriro eztabaidatzea, egitea baizik. Herritarrak informazio hori eskatzen ari zaizkigu, eta parte hartzeko aukera aldarrikatzen dute.

Hori egiteko modua sortzeko erregelamendu bat onartu genuen, eta, bost hilabeteren buruan, ezer gutxi egin dugu aurrera. Horrenbestez, eskatu egiten digute, eta hona ekarri dugu. Ez dugu ulertzen erretiratzeko eskatzea; iruditzen zaigu ados egon ezean kontra bozkatu litekeela, baina ez eskatu, mesedez, erretiratzeko.

Alderdi informatikoari dagokionez, berriz, egia da arduraduna batzordean izan zela, eta bitxia da gogoraraztea, honi buruz eta informazioa eskuratzeari buruz aritu baikinen informatikako arduradunarekin; izan ere, informazio hori eskuratzeko eskubidea dugu, eta izugarri kostatzen zaigu lortzea. Informatika-taldearen erantzuna oso garbia izan zen: badira bitarteko teknikoak informazioa ederto eta aise eskuratu ahal izateko, baina agintzen duenak baimena eman behar dio guk eskuratu ahal izan dezagun.

Ondorioa garbi dago: baliabide teknikoak baldin badaude eta egiten ez bada, uste dut erraza dela zergatik ez daukagun informazio hori eskuratzerik. Berriz esango dugu: hemen batzordean eta osoko bilkuran eztabaidatutako eta onartutako Erregelamenduan jasotako hainbat puntu eskatzen ari gara, eta orain da garaia aplikatzeko eta berriro ere ez eztabaidatzeko.

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**: Ogasun batzordera informatika arduraduna joan zen eta baliabide tekniko eta esan zuen informatiko nahikoa daudela informazioa eskuragarri egoteko; kontua da behar dena agindua dela, borondate politikoa informazio hori guztia herritarren eskuetan egoteko.

Ez dugu ulertzen zelan borondate politiko hori eskatzen dugun bakoitzean, bai gaurkoan eta baita agenda kulturalaren gaiaren inguruan ere, atzera botatzeko eskatzen den beti, batzordera eramateko eta ia eztabaida ezkutatzeko.

tión de volver a debatirlo, es cuestión de llevarlo a cabo. La ciudadanía nos está reclamando esta información y nos está reclamando la posibilidad de participar.

Aprobamos un reglamento para que pudieran hacerlo y cinco meses después poco se ha avanzado; y por ello, como nos lo reclaman, aquí lo traemos. No entendemos que se pida su retirada; creemos que si no se está de acuerdo se puede votar en contra, pero que no nos pidan que lo retiremos.

En cuanto a la parte informática, es cierto que estuvo el responsable en la comisión, y es curioso que nos lo recuerden, dado que hablamos con el responsable de informática de esto y del acceso a la información, información a la que tenemos derecho, información que nos cuesta muchísimo conseguir. La respuesta del equipo informático fue muy clara; hay medios técnicos para que podamos acceder perfectamente y fácilmente a la información, pero quien manda tiene que darle permiso para que nos dé acceso.

La conclusión es clara, si hay medios técnicos y no se llevan a cabo, creo que es fácil saber por qué no tenemos acceso a la información. Nos reiteramos en que aquí pedimos varios puntos que están aprobados en el Reglamento que ya se debatió y se aprobó tanto en comisión como en pleno y que ahora es el momento de aplicarlo y no de volver a debatirlo.

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: El responsable de informática acudió a la Comisión de Hacienda y confirmó que existen medios suficientes para poner la información a disposición de la ciudadanía; lo único que se precisa es la orden por parte del gobierno municipal, voluntad política, para que toda esta información pase a estar en manos del conjunto de la ciudadanía.

Nos cuesta entender cómo cada vez que apelamos a esta voluntad política, tanto en la ocasión que se nos presenta hoy como con respecto a la agenda cultural, se termine por rechazar nuestra propuesta, para trasladarla a la comisión y ahogar el debate.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Egia da informatikako arduradunak esan zuela medio tekniko guztiak ditugula nahi duguna publikatzeko, baina ez da egia kontrakoa egiteko agindua daukala esan zuela. Gainera, esan zuen askotan publikatzen den informazioa ezin dugula publikatu nahi dugun moduan, informazioa delikatua delako. Eta esan behar dut informazioa egon badagoela, nik hona etorri aurretik nire lana egin dut eta informazioa bilatu dut.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Es cierto que el responsable de informática afirmó que el consistorio cuenta con todos los medios para publicar lo que queramos, pero no es cierto que tenga la orden de realizar lo contrario. Además, subrayó que la información que se publica de manera periódica no se puede colgar de cualquier manera, debido a su carácter delicado. Asimismo, debo recordar que tal información existe; yo, por mi parte, antes de acudir a la reunión he buscado la información y la he encontrado.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Informazioa eskuratzea posible da, informatikako arduradunak halaxe baieztatu zuen. Zera berretsi nahi dugu, informazioa eskuragarri ipintzeko agindua, kasu honetan, gobernatzen duenak eman behar duela.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: El acceso a la información es posible, el responsable de informática lo dijo. Queremos reiterar que quien tiene que dar la orden de que sea accesible sea, en este caso, quien gobierna.

Gardentasun-atariko informazioari dagokionez, berriz, gaur goizean artean ez zeuden argitaratuta ez gai-zerrenda, ez batzordeen aktak.

En cuanto a la información en la página del portal de transparencia, ni el orden del día de ninguna comisión ni las actas estaban publicadas esta misma mañana.

Amaitzeko, esan nahi dugu lan handia dagoela egiteko eta, nahiz eta batzuek egoera estali nahi izan nahierara emandako gardentasun-sariekin, errealitatea oso bestelakoa dela. Herritar askok eta askok adierazi digute ez dela betetzen herritarren partaidetzarako ordenantza eta ez dituztela euren eskarien, kontsulten edota kexen erantzunak jasotzen. Are gehiago, gure Taldeak egindako galderak eta erregistratutako eskabide asko erantzunik gabe geratzen dira, eta, erantzunik jasoz gero, berandu etortzen da. Ez da bidezkoa oposizioak udal-kudeaketaren berri prentsaren bidez jasotzea: airearen kalitatea, tren-geltokia, gaztetxearen eraikina, diru publikoarekin bota nahi den eraikin pribatua.

Queremos acabar incidiendo en que queda mucho trabajo por hacer y, aunque haya quien quiera tapar la situación con premios a la transparencia concedidos a dedo, la realidad es muy distinta. Numerosos ciudadanos y ciudadanas nos trasladan que no se está cumpliendo con la ordenanza de participación ciudadana y no reciben respuesta a sus peticiones, consultas o quejas. Es más, nuestro propio Grupo no recibe respuesta a las preguntas ni a las muchas de las solicitudes que registramos, y a las que se nos contesta, normalmente, tarde. No puede ser que la oposición nos tengamos que enterar de la gestión municipal a través de la prensa; como en temas, de calidad del aire, de la estación de tren, del edificio del gaztetxe, un edificio privado que se quiere tirar con dinero público.

Gaur bertan, informazio-batzordeetan ezertxo ere jakinarazi gabe –eta informazioaren kontua nabarmenduko dut–, Bizkaiko Buletin Ofizialaren bidez jakin dugu garai bateko geltokiaren ingurunearen birpartzelazioa onartu dutela, inolako azalpenik bat ere eman gabe. Are gehiago, iazko abuztuan eskatu genuen proiektu horri buruzko informazioa, eta oraindik ere erantzuna jasotzeko zain gaude.

Hoy mismo, sin que nos hayan trasladado nada en las comisiones informativas, y recalco lo de informativas, nos hemos tenido que enterar a través del Boletín Oficial de Bizkaia que han aprobado, sin dar ninguna información, el proyecto de reparcelación de la zona de la antigua estación. Es más, tenemos solicitada información sobre ese proyecto desde agosto del pasado año, y aún seguimos esperando una respuesta.

Osoko bilkuren aktak argitaratu gabe daude 2017ko ekainetik. Herritarrek parte hartzeko foro nagusia, Tokiko Agenda 21, 2015eko apiriletik eguneratu gabe dago.

Legealdi honetan bertan, durangarren diruarekin ordaindu behar izan ditugu prozesuko kostuak, Alkate andreak zinegotzi bati informazioa ukatu baitzion.

Halaber, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak arreta-dei bat ere egin zion Udalari, herritarren talde bati informazioa ukatu izanagatik.

Zuen alderdietarako prentsa-oharrak eta prentsaurrekoak prestatzeko enpresa bati ordaindu beharrean, informazioa eguneratuta eta eskuragarri edukitzeko ordaindu beharko zenukete, eta herritarren parte-hartzea sustatzeko ere bai.

Izan ere, gardentasuna ez da gu geu ikusgarri ez egotea, baizik eta egiten duguna ikusgai ipintzea.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Eusko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **Herriaren Eskubidea** Taldeak lehen transkribatuta, aurkeztutako **mozioko** testua **UKO EGIN DU**.

Las actas de los plenos están sin publicar desde junio de 2017. La información del principal foro de participación ciudadana, la Agenda local 21, está sin actualizar desde abril del 2015.

Esta misma legislatura hemos tenido que pagar con dinero de duranguesas y duranguesas las costas procesales porque la Alcaldesa le negó la información a un concejal.

Incluso han recibido una llamada de atención de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública, por negarse a dar información a un grupo de vecinos y vecinas.

En lugar de gastar dinero público en una empresa que les prepare notas y ruedas de prensa para sus partidos, deberían gastarlo en mantener la información actualizada y accesible, y fomentar la participación ciudadana.

Porque ser transparente no es que no te vean, sino que se vea todo lo que se hace.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **RECHAZA** el texto de la **Moción** presentada por el Grupo **Herriaren Eskubidea**, anteriormente transcrita.

**BEDERATZI.- EUSKAL HERRIA BILDU TALDEAREN MOZIOA, MIKELDIKO IDOLOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA: 2018001601, 2018KO OTSAILAREN 21EKOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Mikeldiko Idoloari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2018001601, 2018ko otsailaren 21ekoa, eta honako hau dioena:

"*Durangoko osoko bilkurak, EH bilduren ekimenez, 2016ko apirilean aho batez onartu zuen Mikeldiko idoloa Durangora ekartzeko eskaera. Erabakia gaur egun Mikeldi gordetzen duen Euskal Museoari helarazi zitzaion. Hortik aurrera hainbat izan dira museoarekin izandako kontaktuak: EH Bilduko zinegotzi batzuk gerturatu ziren eskaeraren berri emateko, gobernu taldeko zenbait kidek ere kontaktuak izan dituzte, baita Durangoko Museoko zuzendariak ere, eta Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordetik ere idatzi bat luzatu zaio Euskal Museoko zuzendariari. Guztietan erantzuna ezetza izan da.*

*Gauzak horrela, Durangarron eskaera hau gauzatze aldera, eta gure ondare historikoa berreskuratzeko, beste pausu bat emateko unea heldu delakoan gaude. Horregatik guztiagatik honako proposamena luzatzen diogu Durangoko osoko bilkurari onartua izateko:*

1. *Durangoko osoko bilkurak Mikeldiko Idoloa Durangora ekartzeko bide judiziala martxan jartzea erabakitzen du.*

2. *Erabaki honen berri Euskal Museoari helaraziko zaio.*"

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Gaurko osoko bilkurara ekarri dugun eskaera nahiko sinplea da; hau da, 2016ko apirilean aho batez onartu zen osoko bilkura honetan Mikeldi idoloa

**NUEVE.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL ÍDOLO DE MIKELDI. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2018001601, DE 21 DE FEBRERO DE 2018).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa al Ídolo de Mikeldi, con Registro de Entrada nº 2018001601, de 21 de Febrero de 2018, del tenor literal siguiente:

"*El Ayuntamiento pleno de Durango, a propuesta de EH Bildu, acordó, en abril de 2016, por unanimidad, solicitar al Museo Vasco que el ídolo de Mikeldi volviera a Durango. Desde entonces, han sido varios los contactos habidos con el Museo Vasco: varios concejales y concejalas de EH Bildu se personaron en el Museo para hacerles llegar la solicitud, y los miembros de la comisión de gobierno también han llevado a cabo varios contactos. Así mismo, desde la comisión de euskera, cultura y educación se remitió un escrito a la dirección del Museo Vasco. En todos los casos, la respuesta ha sido negativa.*

*Ante ello, y con el objeto de llevar a cabo la solicitud hecha por los durangueses y duranguesas para recuperar nuestro patrimonio histórico, creemos que ha llegado el momento de dar un nuevo paso. Por ello, proponemos al Pleno de Durango la aprobación de los siguientes puntos:*

1. *El pleno municipal acuerda poner en marcha la vía judicial con el fin de que el ídolo de Mikeldi vuelva a Durango.*

2. *Se dará cuenta del acuerdo al Museo Vasco.*"

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: La solicitud que traemos a la sesión plenaria de hoy es bastante simple, solicitamos la devolución del ídolo de Mikeldi a Durango, tal y como

Durangora ekartzeko eskaera. Eskaera Euskal Museora bideratu zen eta, gerora, hainbat kontaktu egon dira hori gauzatu ahal izateko.

Durangoko EH Bilduko zinegotziok Euskal Museoan egon ginen, helarazi genien eskaera eta Kultura batzordetik ere kontaktuak egin dira behin baino gehiagotan. Astarloa kulturgintzatik ere bai; museoko zuzendariak berak esan zuen azkeneko batzordean zuzenean hitz egin zuela telefonoz hango zuzendariarekin... Hainbat izan dira kontaktuak baina emaitza oso antzerakoa izan da, edo ezetza edo aitzakiak.

Madrilek "Guernica" kuadroa Gernikara ez ekartzeko ipintzen dituen aitzakia berdinak dira Euskal Museoak Mikeldia Durangora ez ekartzeko ipintzen dituenak. Aitzakiak dira; ez dagoena da borondate politikorik. Pasatu dira ia bi urte eta, uste dugu badela garaia Durangoko Udalak beste pausu bat emateko; hau da, orain dela bi urte onartu zen eskaerari bidea emateko eta gure ondare historikoa berreskuratzeko.

Beraz, gaur eskatzen duguna da Durangoko osoko bilkurak Mikeldi idoloa Durangora ekartzeko bide judiziala martxan jartzea erabakitzea.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ados gaude testuaren espirituarekin, baina aldaketa bat eskatu behar dugu. Izan ere, sartzen garen prozesu guztietan bezala, jakin nahi dugu zer daukagun; hau da, zer argudio, zer eskubide... Eta, horrenbestez, txosten juridiko bat eskatu behar diogu aditu bati, bide judizialari heldu aurretik.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Ados gaude mozioarekin, baina Alderdi Sozialistako Bozeramaleak esan duenaren zentzu berdinean, aldaketa bat zuzenean proposatzen dugu; hau da, bide judiziala hartzeko prest gaude, baina, betiere, bermea baldin badaukagu bide horrek merezi duela.

Proposatzen duguna da lehenengo puntuan aldaketa bat egitea eta honelako zerbait ipintzea: "*Durangoko osoko bilkurak Mikeldiko idoloa Durangora*

se aprobó por unanimidad en el pleno celebrado en abril de 2016. Se trasladó la solicitud al Museo Vasco y a continuación se han sucedido una serie de contactos para hacer posible la devolución.

Los concejales de EH Bildu de Durango estuvimos en el Museo Vasco, trasladamos la solicitud y desde la Comisión de Cultura también se han producido contactos en más de una ocasión. También lo ha hecho Astarloa Kulturgintza, ya que el director del museo me confirmó que durante la última reunión conversó por teléfono con su director... Por tanto, ha habido varios contactos pero el resultado ha sido parecido, negativas y pretextos.

Las disculpas esgrimidas por Madrid para traer el *Guernica* a la localidad de Gernika se repiten en el caso del Museo Vasco para traer el Mikeldi a Durango. Son simplemente pretextos, no hay voluntad política. Ya han pasado casi dos años, y creo que ya es hora para que el Ayuntamiento de Durango dé un paso al frente, para que comience a encauzar la petición cursada hace dos años y para recuperar nuestro patrimonio histórico.

Por tanto, solicitamos que el pleno municipal de Durango decida activar la vía judicial para traer el ídolo de Mikeldi de vuelta a Durango.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Estamos de acuerdo con el espíritu del texto, pero vamos a pedir una modificación. Lo vamos a hacer porque como en todos los procesos que entramos queremos saber qué es lo que tenemos; es decir, qué derechos, qué argumentos y, por tanto, lo que vamos a solicitar es un informe jurídico a una persona experta anterior a entrar en una vía judicial.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Estamos de acuerdo con la moción, pero, en el mismo sentido en que se ha pronunciado la Portavoz del Partido Socialista, proponemos una modificación. Es decir, estamos dispuestos a recurrir a la vía judicial, siempre y cuando contemos con las debidas garantías de éxito.

Por tanto, proponemos introducir una modificación en el punto primero e introducir lo siguiente: «*Para que el pleno municipal de Durango*

*ekartzeko bide judizialari bermez ekiteko, aldez aurreko txosten juridikoa eskatuko du eta, bidezkoa balitz, bide judizial hori martxan jarri"*. Hau da, guk konpromisoa hartzen dugu txosten horrek bermea ematen badigu bide judizial hori hartzeko.

*pueda recurrir con las debidas garantías a la vía judicial para recuperar el ídolo de Mikeldi, se solicitará un informe jurídico previo para poner en marcha el proceso judicial en caso de que este fuera favorable»*. Es decir, nos comprometemos con la vía judicial, siempre y cuando el informe jurídico la avale.

* <u>**Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**</u>: Guk bide judiziala martxan jartzea aipatu dugunean hori esan nahi genuen; hau da, aurretiko txostena egitea eta, bidezkoa balitz, aurrera egitea.

* Concejal <u>**Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**</u>: Cuando desde nuestro Grupo apelábamos a la vía judicial era precisamente esto lo que queríamos decir, realizar un informe previo y continuar en caso de que fuera favorable.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Eusko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **Euskal Herria Bildu** Taldeko **mozioaren** testua **ONARTZEN DU**.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la **Moción** presentada por el Grupo **Euskal Herria Bildu**, anteriormente transcrito.

* Alkatesa <u>**Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**</u>: Atzo, Bozeramaleen Batzordean, talde proposatzaileak 10. puntuko mozioa erretiratu zuen, hain zuzen ere, testu bateratu bat egin ahal izateko aukerak daudelako, eta ez-ohiko bozeramaleen batzorderen bat egingo dugu hori adosteko.

Era berean, 11. puntuko mozioaren Talde proposatzaileok ere erretiratu egingo dugu, gauza bera lortu ahal izateko eta, seguruenik, foro berberean lortu ahal izateko.

* Alcaldesa <u>**Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**</u>: En la Junta de Portavoces celebrada ayer, el Grupo proponente retiró la moción del décimo punto del orden del día, precisamente porque existen posibilidades para conseguir un texto consolidado, y haremos una junta extraordinaria para llegar a un acuerdo a este respecto.

Asimismo, los Grupos proponentes de la moción del punto once del orden del día, también vamos a proceder a su retirada con el mismo fin y para trasladarlo al mismo foro.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Guk aurkeztea nahi genuen, guk geuk antolatzea eta erabakitzea baino hobe, Nagusiak eta Izar Gaztea elkarteak existitzen diren aldetik. Ezin dugu lortu aurkeztea?

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Nosotros sí queríamos que se presentara, más que nosotros organizar y decidir, la que ya existe de la asociación Nagusiak e Izar Gaztea. ¿No podemos hacer que se presente?

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ez, erretiratu egiten da eta erretiratu egiten da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: No, se retira definitivamente.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Premiazko gisa?

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: ¿Como urgente?

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Kontua da erretiratzea eskatu zela atzo bozeramaleen batzordean, eta hori da egiten dena, hain zuzen ere, erakunde adierazpen bat lortzeko.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: La cuestión es que se solicitó su retirada en la Junta de Portavoces que tuvo lugar ayer, y es lo que vamos a hacer, para consensuar una declaración institucional.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Mozio hau sartu zen pasa den urteko urriaren 31n, pasatu dira lau hilabete eta uste dugu ez dela luzatu behar gehiago eztabaida, eta horregatik eskatzen dugu urgentzia.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Esta moción tuvo entrada el pasado 31 de octubre, ya han trascurrido cuatro meses. Por tanto, creemos que no hay que dilatar más la discusión, de ahí la urgencia.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Atzo bozeramaleen batzordean eskatu zidaten hau erretiratzea eta beste hori denon artean begiratzea eta, posible balitz, erakunde adierazpen bat egitea; eta hori da onartu egin dudana Gobernu Taldearen izenean, beraz, hori da eskatutakoa.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Ayer en la Junta de Portavoces me solicitaron la retirada de la moción para consensuar entre todos, a ser posible, una declaración institucional, y es precisamente esto lo que he aceptado en nombre del Equipo de Gobierno. Por consiguiente, es precisamente esto lo que se solicita.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Beno, ba guk mantentzea eskatzen dugu.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Bien, pues nosotros solicitamos mantener la moción.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Etenaldia egingo dugu eta, mesedez, Bozeramaleak nire bulegora.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Vamos a hacer una pausa. Señores Portavoces, por favor, vengan a mi despacho.

********

********

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz jarriko dugu martxan plenoa. Bozeramaleen Batzorde ez-ohikoa egin eta gero, kontuan hartuta gai bereko mozio bat izan dugula udal honen barne bideetan urriaren 31tik eta kontuan hartuta pentsioen gai hau pil-pilean dagoela eta tamalez ez dela hurrengo egunetan era egokian bideratuko, ondokoak erabaki ditugu:

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Reanudamos la sesión. Después de la Junta extraordinaria de Portavoces, considerando que hemos tenido una moción interna desde el 31 de octubre, teniendo en cuenta que el tema de las pensiones constituye un tema candente y que, desafortunadamente, no se hay augurios de una solución para los próximos días, hemos acordado los siguientes puntos:

1. Harremanetan jartzea Nagusiak elkartearekin edo/eta Izar Gaztea elkartearekin.

2. Bozeramaleen batzorde ez-ohiko bat antolatzea testu hau aztertzeko eta ikusteko ea posible dugun erakunde adierazpen moduan egitea.

Hori ez bada horrela edo elkarteak berak ez badu onartzen erakunde adierazpen moduan sartzea, hurrengo plenora ekarriko genuke mozio moduan.

**Beraz, hamargarren eta hamabigarren puntuak bertan behera geratzen dira eta hurrengora pasatuko gara.**

1. Contactar con la asociación Nagusiak y/o Izar Gaztea.

2. Convocar una Junta extraordinaria de Portavoces para analizar este tema y para tantear si es posible realizar una declaración institucional.

En caso de que no prospere o que la asociación no consienta su aprobación como declaración institucional, volveríamos a traer la propuesta como moción al pleno siguiente.

**Por tanto, se retiran los puntos décimo y undécimo y pasaremos al siguiente.**

## HAMABI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

- **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Azkeneko osoko bilkuran egin genuen bezala, jakin nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak noiz ekarriko duen abenduaren 20an hitz emandako zorioneko txostena, sailburu-orde andrea etorri zenean hainbat ezaugarri azaltzera batere txostenik gabe. Eman digutena zera izan da, Excel orri bat makina bat daturekin, baina bat bera ere ez eurek kudeatuta; hortaz, jakin nahiko genuke noiz iritsiko den txostena eta, bide batez, bera etorriko balitz aurkeztera, askoz ere hobeto!

- **Uribe Padilla andreak (EH Bildu):** Alde batetik, eskatzen duguna da azken plenoetako galderak erantzutea, uste dugu hau bete egin behar dela, eta pendiente daude hainbat eta hainbat galdera.

  - Airearen kalitatearekin lotuta, goizean jaso dugu albiste bat eta gomendatzen du mugikorrerako aplikazio bat jaistea; AirACT deitzen da aplikazio hau, eta gobernu taldeko kideei berori jaistea eskatzen diegu, momentuan ikusten delako zein datu dauden. Bertan ikusten da momentuan dagoen aire kalitatea, horrela lehenbailehen Eusko Jaurlaritzari abisatzeko.

## DOCE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

- Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Tal y como hicimos en el último pleno, queremos hacer hincapié cuándo el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco va a traer el dichoso informe que se nos prometió el 20 de diciembre, cuando vino la Viceconsejera a explicar una serie de características pero sin informe. Como lo que se nos ha derivado es una hoja Excel con muchos datos pero sin ninguna gestión de ellos, nos gustaría saber cuándo va a llegar el informe y si pudiera ella venir a explicarlos sería mejor que mejor.

- Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Por una parte, solicitamos la respuesta a las preguntas de los últimos plenos. Creemos que se trata de un punto que hay que cumplir, y nos encontramos ante una serie de preguntas sin respuesta.

  - En cuanto a la calidad del aire, esta mañana recibíamos una noticia que nos recomendaba la instalación de una aplicación en el móvil, llamada AirCAT. Por tanto, pedimos a los miembros del Equipo de Gobierno que instalen la aplicación ya que se puede acceder al momento a los datos existentes. Se puede ver la calidad del aire a tiempo real, para poder así avisar al Gobierno Vasco.

- Askotan esan dugu batzordeetan. Alde Zaharrean dauden karkabak egokitzeko garaia da, eta erabilera moldatu edo mugatu egin beharko da. Uste dugu honen erantzukizuna udalarena dela.

- Jendea kexatzen da batez ere Alde Zaharreko kaleek laban egiten dutelako, baina Durango osora zabaltzen den kontu bat da. Eskatzen duguna da irtenbide bat ematea honi.

- Eskualde mailatik jaso dugun galdera bat. "*Protocolo de actuación y coordinación frente a la violencia contra las mujeres de Durangaldea*" gaiaren inguruan urtarrilaren 26an bilera bat egin zen; mahai politikorako deia izan zen eta bertan Abadiño, Elorrio, Berriz, mankomunitatea eta Ertzaintzako kide guztiak egon ziren.

  Kideak esaten dugunean, politikariak dira, eta Durangotik ez zen inor joan. Gure galdera da ea zergatik ez zen inor joan. Erantzuna eskatu didate eskualdetik egon ziren udalek.

Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Saiatuko naiz galdera batzuei bahintzat erantzuna ematen.

Herriaren Eskubideko kideak galdetutakoari buruz, Eusko Jaurlaritzaren erantzuna ea noiz etorriko den: bozeramale guztiei esan zaie gauza bera, hau da, txostena heltzen denean eman egingo da baina oraindik ez dago gure esku. Dagoenean emango da.

Beste alde batetik, EH Bilduri, plenoetako galderak erantzutearena: Azken plenoetako galderak zuzenean aztertu ditut eta erantzunak emanda daude, beste gauza bat dira eskaerak. Eskaerak ez dira erantzuteko modukoak, baizik eta kontuan hartzeko modukoak edo ez, ez dago erantzun posible bat, onartzen da edo ez, beste barik.

- Lo hemos repetido muchas veces en las comisiones. Ya es hora de adaptar las cárcavas existentes en el Casco Viejo, y se deberá adaptar o restringir su uso. Creemos que el Ayuntamiento tiene la responsabilidad.

- La gente se queja sobre todo porque las calles del Casco Viejo están resbaladizas, pero este es un asunto que atañe al conjunto de la localidad. Solicitamos que se dé una respuesta a este problema.

- Una pregunta que hemos recibido desde el ámbito comarcal. En cuanto al tema relativo al «*Protocolo de actuación y coordinación frente a la violencia contra las mujeres de Durangaldea*», se celebró una reunión el 26 de enero, en el que se realizaba un llamamiento para reunir una mesa política, en la que participaron los miembros de Abadiño, Elorrio, Berriz, la mancomunidad y Ertzaintza.

  Cuando hablamos de miembros nos referimos a los representantes políticos, y desde Durango no acudió nadie. Nuestra pregunta es por qué esta ausencia, ya que nos lo han preguntado desde los diferentes municipios de la comarca que efectivamente participaron.

Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Procuraré al menos responder a algunas de las preguntas.

En cuanto a la cuestión planteada por el compañero de Herriaren Eskubidea, sobre cuánto tardará en llegar la respuesta del Gobierno Vasco: hemos respondido lo mismo a todos los portavoces, es decir, tan pronto como recibamos el informe se lo trasladaremos. En cualquier caso, aún no lo tenemos. En cuanto lo recibamos se lo daremos.

Por otra parte, y respondiendo a la cuestión relativa a responder a las preguntas de los plenos, planteada por EH Bildu. Las preguntas formuladas en los últimos plenos han sido analizadas directamente y ya se encuentran respondidas, otra cosa son ya las solicitudes. Las solicitudes pueden no ser respondidas y tan solo tomadas en consideración, por lo que no existe una respuesta posible: se acepta o no se acepta.

Alde Zaharreko karkaben asuntoa: Badago gure gestio planean jasota noiz ekingo diogun hurrengo karkabari eta zeintzuk diren diru-kontuak eta epeak. Beraz, zure esku dagoen informazioa da.

En cuanto a las cárcavas del Casco Viejo, en nuestro plan de gestión se recoge cuándo se abordará la próxima cárcava y cuáles serán las dotaciones y los plazos previstos. Por tanto, se trata de una información que se encuentra a su disposición.

Laban egitearena eskaera moduan apuntatu dut, eta urtarrilaren 26koa galdetu behar dut.

En cuanto a los resbalones, tomamos nota; por su parte, el asunto relativo al 26 de enero, debo preguntarlo.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:55ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:55 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.